



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2023KO APIRILA

Apirila, orokorrean, oso beroa eta oso lehorra izan zen, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, han euri kopurua ohiko balioetatik ez zen asko urrundu. Tenperaturaren kalifikazioa oso beroa izanagatik, efemeride bakarra tenperatura minimoena izan zen, hilaren 5ean. Muturreko fenomeno meteorologikoei dagokienez, hilabetea oso lasaia izan zen. 5 abisu hori soilik igorri ziren, denak olatuen altueragatik nabigaziorako. Duda barik, azpimarragarriena intsolazioa izan zen, urte sasoi horretan ohikoa dena baino %35 handiagoa izan baitzen.

Prezipitazioa

Apirila oso lehorra izan zen ia EAE osoan, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, han lehorra izan zen. Gipuzkoa ipar-ekialdean eta Bizkaiko kostaldean izan ezik, gainerako tokietan espero zitekeen euriaren erdia baino gutxiago egin zuen, eta EAEren mendebaldean %30era ere ez zen iritsi. Mende honetako apiril lehorrenetakoa izan zen Bilbon eta Vitoria-Gasteizen (Bilbon 2011 eta 2010 izan ziren lehorrenak eta Vitoria-Gasteizen 2017 eta 2010) eta Donostia tarteko posizioan dago. Beraz, defizit plubiometrikoa areagotzen ari da udaberrian. SPI indizearen arabera (Prezipitazio Estandarizatuaren Indizea), kostaldean izan ezik, EAEko zati handi batean lehorre meteorologikoaren larritasun-maila oso lehorra eta erabat lehorren artean dago azken 12 hilabeteetan.

Prezipitazioaren banaketa espazialak ohiko prezipitazio-eremuak marrazten ditu, baina oso balio txikiekin, eta alde nabarmena dago Gipuzkoa ipar-ekialdeko mendialdean dauden estazioen (Nafarroako mugan) eta gainerakoen artean. Hain zuzen ere, han daude baliorik handienak, 100 mm-ak gainditzen dituzten bakarrak (Eskas 245 mm, Añarbe 176 mm, Ameraun 176 mm, Oiartzun 137.2 mm, Ereñozu 125.5 mm, Andoain 102.7 mm, Lasarte 101.1 mm). Mendebalderantz mugitu ahala, balioak txikiagoak dira, gorakada txikiekin Bizkaiko kostaldean eta mendi inguruetan; hala ere, 50 mm baino apur bat gehiago besterik ez (Mañaria 88.7 mm, Urkiola 83.7 mm, Muxika 82.7 mm, Almike 81.2 mm). Balio txikienak Araba hegoaldekoak (Párganos 12.3 mm, Zambrana 18.1 mm, Trebiño 19.1 mm, Moreda 20.9 mm, Nanclares 21.5 mm).

Logikoki, euri-egun kopurua espero zitekeena baino txikiagoa izan zen, salbuespen batzuekin. Kontuan hartu behar da apirila euri-egun gehien izan ohi dituen hilabetea dela, nahiz eta pilatutako kopuruetan ez nabaritu, izan ere udazken amaierakoak eta negu hasierakoak handiagoak izan ohi dira. Hiriburuei dagokienez, Donostian 13 euri-egun izan ziren, gutxi gorabehera ohikoa; aldiz Bilbon 9 euri-egun izan ziren eta Vitoria-Gasteizen 7, aldiz batezbestekoa 12.5 eta 11.2 euri-egun da, hurrenez hurren.

Lehenengo bi egunetan euria oso ugaria (> 30 mm) izan zen, nahiz eta oso leku mugatuan izan, Gipuzkoa ipar-ekialdean (Eskas 39.4 mm, Añarbe 29.7 mm hilaren 1ean; Eskas 56.2 mm, Ameraun 44.2 mm, Añarbe 35.9 mm, Oiartzun

32.6 mm hilaren 2an); eta hilabete osoan bi egun horietan soilik izan zen euria oso ugaria. Egun horietan zirkulazio polarra izurtua zegoen eta jet korrante polarra Iberiar penintsularen iparraldea zeharkatzen ari zen.

Hilaren 1eko batezbestekoen antzekoak izan ziren hilaren 12an (Eskas 28.3 mm, Oiartzun 20.7 mm, Añarbe 20.3 mm) eta 13an kostaldeko eskualdeetan (Eskas 29.7 mm, Oiartzun 27.6 mm, Miramon 26.1 mm, Almike 25.1 mm, Berriatua 22.2 mm).

Gero, hilaren azken hereneko egun batzuetan euria egin zuen, baina dena den, orokorrean, oso gutxi egin zuen. Azpimarratzekoak, hilaren 23an pilatutakoak, oso modu erregularrean banatu baitziren eta ongietorriak izan ziren udaberrian. Balio handienak Araba hegoaldean pilatu ziren (Herrera 11.9 mm, Espejo 11.2 mm, Moreda 10.9 mm, Zegama 10.4 mm, Subijana 9.5 mm).

Taula 1: Azken urteetan apirilean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	27.4	76.6	52.3	51.5	60.6	107.7	60.0	55.9	61.7	41.2
Lasarte	106.0	187.4	54.4	106.7	115.7	225.5	79.5	75.3	100.5	80.0
Arrasate	66.5	105.8	58.1	81.2	89.1	188.8	76.1	122.4	58.5	54.7
Abetxuko	25.7	70.1	56.6	51.8	78.2	123.6	17.7	49.6	39.2	36.5
Páganos	15.2	41.9	28.8	54.0	66.6	96.1	11.6	33.8	14.3	32.2

Tenperatura

Apirila oso beroa izan zen, eta Arabako Errioxan erabat beroa. Kostaldean batez besteko tenperatura 12-13 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadan 11 °C ingurukoa eta Arabako Errioxan 14 °C-ra hurbildu ziren, gutxi gorabehera 1.7 °C 1981-2010 aldi arruntaren batezbestekoaren gainetik. Lurralde osoa kontuan izanda, anomalia oso irregularra izan zen, ipar-ekialdean 1 °C baino apur bat altuagoa eta Arabako Errioxan 2.5 °C baino altuagoa. Mende honetan, orain arte izan dugunaren arabera, ez dira batezbesteko esanguratsuak; 2011ko errekorra urrun samar geratu zen, Arabako Errioxan izan ezik, bertan ia berdina izan zen.

Eguneko tenperaturaren bilakaeran, egun beroak nagusitu zirela ikusten da, hilabetearen hasieran eta erdian izan ezik, orduan egun hotz gehiago izan ziren. Anomalia positibo handienak hilabetearen bukaeran izan ziren.

Hilaren 5etik 10era bitartean, azpimarragarriena oszilazio termiko altua izan zen. Egun horietan zerua nahikoa garbi egon zen; egunsentian tenperatura hotza izan zen, hilabete osoan neurtutako baxuena, eta bereziki Mediterraneo isurialdeko zenbait tokitan izotz puntura jaitsi zen. Izotz kontuak hilaren 5ean nabariagoak izan ziren, Mediterraneo isurialde osoan egin baitzuen izotza, eta handia izan zen zenbait tokitan, ia gogorra (Pagoeta -7.5 °C, Subijana -7.5 °C, Albaina -7 °C,



Iturrieta -6.7 °C, Trebiño -6.5 °C, Tobillas -6.3 °C, Espejo -6.2 °C). Kantauri isurialdeko zenbait tokitan ere izotza egin zuen, baita kostaldeko zenbait eskualdeetan ere (Urkiola -2.8 °C, Muxika -1.4 °C, Aitzu -1 °C, Matxinbenta -0.8 °C, Urkulu -0.7 °C, Orozko -0.6 °C, Aixola -0.2 °C). Kostaldean balio minimoak egun hartan 1 °C eta 5 °C artekoak izan ziren (Punta Galea 4 °C, Almike 5 °C, Inurritza 1.3 °C, Oiartzun 3.3 °C), eta hilaren 24tik aurrera neurtutako balioekin alderatuz gero kontraste handia dago, gutxi gorabehera 15 °C-koak izan baitziren, hau da, itsasoko uraren tenperatura. Zenbait kasutan, batez ere Arabako zenbait tokitan eta Bizkaiko mendialdeko gunee batzuetan, XXI mendeko tenperatura minimoen apirileko errekor absolutua gainditu zen.

Maximoei dagokienez, ez zen egun bereziki berorik egon, balio altuenak egun ezberdinetan banandu ziren. Hori, batez ere, kostaldeko eskualdeetan bete zen, maximoak hilaren 9an neurtu ziren (Miramon 25.3 °C, Arteaga 24.3 °C, Berriatua 23.9 mm, Santa Clara 21.3 °C, Inurritza 20.1 °C), hilaren 19an (Zorrotza 26.9 °C, Punta Galea 22.4 °C), hilaren 27an (Muxika 27.4 °C, Matxitxako 24.7 °C, Almike 22.5 °C, Oleta 22.4 °C) eta hilaren 28an (Jaizkibel 25.5 °C, Behobia 24.6 °C). Barnealdean, gehienak hilaren 27an (Gardea 31.4 °C, Alegia 30.4 °C, Elorrio 30.1 °C, Igorre 29.8 °C, Orozko 29.7 °C, Saratxo 29.6 °C) eta 28an (Alegia 32.3 °C, San Prudentzio 31.5 °C, Elorrio 31.3 °C, Añarbe 30.3 °C, Belauntza 30.1 °C, Araxes 29.8 °C) neurtu ziren, soilik egun horietan gainditu ziren 30 °C-ak, beti ere Kantauriko bailaretan.

Tenperatura altuak izateaz gain, intsolazioa ere sasoi horretan espero zitekeena baino askoz altuagoa izan zen, %35 inguru altuagoa, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, bertan portzentajea %15-20 artean egon zen. Hiriburuei dagokienez, Bilbok 186 eguzki-ordu izan zituen, Donostiak 193 eta Gasteizek 224.

Taula 2: Apirilean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	14.5	12.9	13.1	15.0	13.5	14.4	12.7	13.4	15.5	14.6
Lasarte	12.8	11.8	12.3	14.9	12.1	14.3	12.1	12.1	14.2	13.6
Arrasate	12.6	10.8	10.7	13.2	10.7	12.6	11.2	10.0	12.8	12.6
Abetxuko	11.1	8.9	9.1	12.2	9.9	11.4	10.5	9.2	12.1	12.5
Párganos	13.7	10.2	10.2	11.9	10.4	11.3	12.1	9.6	12.5	13.2



Haizea

Tokian tokiko haize ahula ibili zen hilabeteko egun gehienetan, zenbait alditan hirugarren eta laugarren koadranteko fluxu biziagoa.

Hilabetearen hasieran ipar-mendebaldeko haize zakarra ibili zen; hilaren 1ean Matxitxakon 100.2 km/h-ko ufada neurtu zen eta Paganos-en 98.4 km/h-koa, haizeguneak ez diren tokietan hilabete osoan neurtutako boladarik altuena. Hilaren 2an haizea oraindik Araba hegoaldean zakar ibili zen (Páganos 94.5 km/h) eta Gipuzkoako zenbait tokitan (Bidania 82.2 km/h) ere bai.

Hilaren 3tik 10era bitartean haizea aldakor ibili zen eta oso ahul. Arratsaldetan ipar eta ipar-ekialdetik finkatu zen eta indar apur bat hartu zuen; barnealdeko zenbait tokitan haize-bolada gogor batzuk izan ziren, bereziki Araban, eta zenbait kasutan, haizeguneak ez diren tokietan haizeguneetan baino ufada gogorragoak neurtu ziren.

Hilaren 12tik 15era bitartean haizea hainbat aldiz mendebal/hego-mendebaldetik mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen, Kantauritik igaro ziren fronte batzuen eraginez. Haizearen intentsitatea handiagoa izan zen, ufada oso gogorrak izan ziren; hilaren 14an 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten Cerrojan (104.8 km/h) eta 80 km/h-ko abiadura haizeguneak ez diren tokietan (Páganos 85.7 km/h).

Hilaren 16tik 20ra bitartean haizea aldakorra eta ahula izan zen, hala ere, arratsaldetan ipar-osagaiko haize-bolada gogorrak neurtu ziren, bereziki Araban.

Hilaren 21ean 111.1 km/h-ko haize-bolada neurtu zen Orduñan, hilabete osoan haizeguneetan neurtutako ufadarik altuena. Ordu berean, Mallabiako estazioak 80 km/h-tik gorako bolada neurtu zuen (82.9 km/h). Bi kasuetan ekaitzei loturiko ufadak izan ziren, eta ez egoera sinoptiko zehatz bati loturikoak.

Hilaren 22an eta 23an haizeguneetan hego-osagaiko haize-bolada oso gogor batzuk neurtu ziren arren, hilaren 24tik aurrera haizea berriro ere aldakor eta ahul ibili zen, eta horrela jarraitu zuen hilaren 28ra arte. Hilabetearen bukaeran ipar-osagaiko haizea ibili zen, hilabeteko lehenengo egunetan baino ahulago.

Analisia

Apirilaren 1etik 3ra

Hilabetea eguraldi nahasiarekin hasi zen, zaparradak bota zituen eta Kantauri isurialdeko zenbait lekutan mardulak izan ziren noizbehinka, bereziki ekialdean. Egoera hori jet korronteak izurtzean eragin zuen; ardatz bertikaleko gailur atlantiko bati eta Frantzia kokaturiko eta -26 °C-ko tenperatura izan zuen depresioari esker. Horrela, ipar-osagaiko jatorri polarreko fluxu baten eraginean geratu ginen. 850 hPa-eko mailan tenperatura -1 °C-raino jaitsi zen eta elurra

1000-1100 metrotik gora egin zuen. Aipatzekoak dira hilaren 1etik 2ra bitartean Eskas estazioan jaso ziren 95 mm-ak.

Apirilaren 4tik 12ra

Apirilaren 4tik aurrera presio altuak nagusitu ziren eta eguraldia egonkortu egin zen. Atlantikoko gailurra kontinenterantz mugitzen joan zen, eta antizikloi indartsu baten itxura hartu zuen azalean, zeina Eskandinavian zentratu zen; hilaren 4an 1035 hPa-era iritsi zen. Hurrengo egunetan bere eragina txikitu egin zen, Penintsula aintzira barometrikoko egoeran geratu baitzen hilaren 6tik 9ra. Zerua hodei gutxirekin egon zen eta, haizea, lehenengo ekialdekoa izan zen eta ondoren brisa ibili zen. Tenperatura baxua izan zen lehenengo egunetan, bereziki minimoak. Hilaren 5eko goizaldean, minimoen errekorrak izan ziren estazio batzuetan, azpimarragarria da Pagoetan eta Subijanan neurtutako -7.5 °C-ko balioa. Maximoak, ordea, egunez egun igotzen joan ziren, eta barnealdean anplitude termiko nabarmenak izan ziren; hilaren 9an neurtu ziren balio altuenak eta Kantauri isurialdeko zenbait tokitan 28 °C-raino iritsi ziren termometroak.

Apirilaren 12tik 15era

Eguraldi egonkorra eta lehorra hilaren 12an amaitu zen. 500 hPa-eko mailan zegoen aska barometriko batek fronte hotz bideratu zuren azalean. Frontea igaro ondoren, ipar-mendebaldeko fluxua nagusitu zen maila guztietan. Hilaren 13an, tenperatura 850 hPa-eko mailan -2 °C-ra jaitsi zen. Eguraldia euritsua izan zen, batez ere ipar partean, eta Eskas-en prezipitazio maximoa ia 30 mm-koa izan zen, bai 12an eta baita 13an ere; elur-kota 1000-1100 m ingurura jaitsi zen.

Apirilaren 15etik 20ra

Giro euritsua hilaren 15ean amaitu zen. Penintsularen mendebal/hego-mendebaldetik gailur berri bat sartu zen, iparralderantz zabalduz joan zen eta hilaren 17an Britainiar uharteetaraino iritsi zen, depresio batekin Italiar penintsulan. Azalean egoera antzekoa izan zen: hilaren 15ean antizikloi bat Portugalen kokatu zen eta 17an Eskandinavian, eta 1041 hPa-era iritsi zen hilaren 18an. Hilaren 15ean eta 16an 850 hPa-eko mailako tenperaturak gora egin zuen eta 8-10 °C-ra iritsi zen. Hilaren 18an, berriro ere jaitsi eta 4-5 °C-koa izan zen, egun horietan nagusi izan zen ekialdeko haizeari esker. Azken finean, eguraldi egonkorra eta tenperatura apalak izan ziren, lehenengo koadranteko haizeari esker. Izotza egin zuen Arabako zenbait tokitan, nabarmentzekoa da hilaren 17an Pagoetan neurtutako -3 °C-ko balioa.

Apirilaren 21etik 24ra

Hilaren 21etik aurrera, Eskandinavian zegoen blokeo antiziklonikoa hautsi egin zen. Penintsularen ipar-mendebaldean depresio sakon bat garatu zen, zenbait fronte lotuta zituena. Horietako bat mendebaldetik sartu zen hilaren 21etik 22ra bitartean. Hilaren 21ean ezegonkortasuna areagotzen joan zen eta ekaitz-gune sakabanatuak sortu ziren. Tenperaturak nabarmen egin zuen gora ipar partean, hegoaldeko haizea ibili baitzen, eta balio maximoak ia 30 °C-koak izan ziren Kantauriko bailaretan. Hala ere, frontea igaro zenean, tenperaturak nabarmen egin zuen behera hilaren 22an, eta zaparradak bota zituen ipar partean. Hilaren

23an, prezipitazioa lurralde osora zabaldu zen, eta Araba hegoaldean 10-12 mm pilatu ziren, udaberri hartan azpimarratzeko moduko datua.

Apirilaren 25etik 28ra

Hilaren 25ean, Afrika iparraldetik gailur bat sartu zen penintsularen hegoaldera, sasoi hartarako nahikoa beroa zen aire-masa batekin batera (22 °C 850 hPa-eko mailan). Horrela, apirilerako tenperatura maximo absolutuaren errekorrak hautsi ziren penintsularen hegoaldeko eta erdialdeko eskualde askotan. Hainbat frontek Kantaurialdea ukitu zuten, ondorioz, beroaldi hartatik kanpo geratu zen EAE. Hala ere, tenperaturak gora egin zuen hilaren 27an eta 28an, batez ere lurraldearen hegoaldean eta Kantauriko bailaretan.

Apirilaren 29tik 30era


Hilabetearen bukaeran eguraldia aldatu egin zen. Aska txiki bat eta berari loturiko fronte bat ahulduta iritsi ziren, eta nahikoa izan zen tenperatura ohiko balioetara bueltatzeko eta euria egiteko, bereziki hilaren 30ean eta ipar isurialdean.

Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2023ko apirileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	14.5	19.3	26.9	10.7	4.8	0	27.4	5.5	9
Lasarte	12.8	17.4	25.7	8.8	3.2	0	106.0	24.7	14
Arrasate	12.6	19.3	29.3	7.0	1.0	0	66.5	24.3	10
Abetxuko	11.1	18.5	27.5	4.5	-1.6	5	25.7	6.3	8
Páganos	13.7	20.6	27.5	7.3	-1.8	1	15.2	9.0	3





Eguneko tenperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilututako prezipitazioa
 Tenperatura minimoa
 Batez besteko tenperatura
 Tenperatura maximoa



Prezipitazioaren jokaera

Behatutako prezipitazioa
Precipitación observadaPrezipitazio normala
Precipitación normalPrezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normalPrezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal



Muturreko balioak

Apirileko tenperatura minimo absolutua

Izena	Aurreko errekorra XXI mendea (°C)	Data	Aurtengo errekorra XXI mendea (°C)	Data	Estazioa jarritako urtea
Altube	-3.8	13/04/2019	-5.5	05/04/2023	1999
Arboleda	1.6	28/04/2017	1.1	05/04/2023	2004
Beluntza	-1.9	02/04/2016	-2.8	05/04/2023	2008
Espejo	-3.8	08/04/2021	-6.2	05/04/2023	2004
Gorbea	-3	15/04/2001	-3.2	05/04/2023	1999
Igorre	0	16/04/2021	-0.1	05/04/2023	1999
Iturrieta	-6.6	13/04/2019	-6.7	05/04/2023	1999
Navarrete	-5.5	07/04/2000	-5.6	05/04/2023	1999
Páganos	-1	02/04/2016	-1.8	05/04/2023	2004
Subijana	-5	13/04/2019	-7.5	05/04/2023	1999
Trebiño	-4.9	02/04/2016	-6.5	05/04/2023	2007
Urkiola	-2.3	15/04/2001	-2.8	05/04/2023	1999
Urkulu	-0.5	13/04/2019	-0.7	05/04/2023	2002



Muturreko egoerak

Apirilean 5 abisu hori igorri ziren olatuen altueragatik nabigaziorako.

- Hilaren 1ean, olatuen altuera adierazgarria 3 m ingurukoa izan zen Pasaiaiko portuan, nahiz eta goizaldean zertxobait altuagoa izan (3.28 m 01ean UTC). Gauean olatuen altuera handitzen joan zen eta egunaren bukaeran 3.5 m inguruan egon zen (3.51 m 23etan UTC). Hilaren 2ko goizaldean oraindik 3 eta 3.5 m artean egon zen, baina goizetik aurrera 3 m-tik jaitsi zen eta azken orduetan 2.5 m ingurukoa izan zen.

Larunbata, hilak 1: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 2: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 06etara ordu lokala.

- Hilaren 12ko arratsalde-gauean olatuen altuera adierazgarria handitzen joan zen Pasaiaiko portuan eta hilaren 13ko goizaldean 3.5 m-ren muga gainditu zuen, ia 4 m-ra iritsi zen (3.96 m 04etan UTC). Hilaren 13an goizean goiz azkar igo zen eta 4.5 m-ak gainditu zituen (4.66 m 07etan UTC). Egunaren erdiko orduetan 4 eta 4.5 m artekoa izan zen, baina arratsalde-gauean jaisten hasi zen eta bukaeran 3 m baino apur bat gorago egon zen (3.18 m 23etan UTC). Hilaren 14ko goizaldean jaisten jarraitu zuen eta goizean 2 eta 2.5 m artean kokatu zen. Hala ere, egunaren erdiko orduetan igo egin zen berriro eta arratsalde-gauean 3-3.5 m inguruan egon zen (3.61 m 22etan UTC). Hilaren 15eko goizaldean oraindik 3.5 m inguruan ibili zen (3.48 m 01ean UTC), baina goizean jaisten joan zen eta 3 m baino txikiagoa izan zen egunaren bigarren zatian.

Osteguna, hilak 13: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 03etatik 21etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 15: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 06etara ordu lokala.

Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.